

**BORONDATEZKO ESZEDENTZIAREN BEHIN BEHINEKO SENTENTZIA.**

Lan hitzarmeneko 47.artikuluak arautzen du eszedentzia boluntarioak hartzeko eskubidea. Haurren zaintza edo helduen zaintzagarik izanez gero, eszedentziatik bueltan LEP-arteko kontratudunei, kontratua bermatu izango zaie, ez ordea borondatezko eszedentzia eskatu dutenei. Orain arte, enpresak, borondatezko eszedentzia hartu duten guztiei LEP-arteko kontratua **apurtu** egin die, ordezkoen zerrendara bidaliz (lan hitzarmenean horrela jasota egon ez arren).

**steilaskide** batek egoera honetan Enpresa salatzea erabaki zuen. Epaile batek arrazoia eman dio, eta orain behin betiko sententziaren zain gaude.

Honek, berriro ere, **Enpresaren erabakien aurrean adi egotea eskatzen digu.**

Zuhurrak izan behar bagara ere; sententzia honek behin betiko bihurtuko balitz berriro aztertuko genuke LALaren 4.artikuluan izango lukeen eragin zuzena.

**Langile guztien eskubideak bermatuak egon arte, lanean jarraituko dugu.**

